Bizitza eta Osasuna erdigunera. Baliabide nahikorik gabe, kalitatezko UPV/EHUrik ez

Gaur, irailak 14, Ikasturte irekiera ofiziala burutu da Bilboko Bizkaia Aretoan, Errektore eta bere taldeko kideak, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria eta Hezkuntza Sailburua, EAEko gizartearen eta UPV/EHUren hainbat ordezkari eta kide bertan izan direlarik.

Gogorra izaten ari da pandemiaren ondorioz jasaten ari garena euskal gizartean (osasungintzan, nagusien egoitzetan, komertzio txikian, bihar Greba egingo duen hezkuntza ez-unibertsitarioan), baina baita UPV/EHUn ere. Nahiz eta horren inguruko datuak eskatu ditugun, ez dakigu EHUko zenbat langile kutsatu diren orain arte. Baina jakin badakigu, **zenbait lankide Covid 19ak kutsatuak izan direla**: **garbiketakoak, administrazio eta zerbitzuetakoak, zaurgarriak** izanik telelanean jardutea ukatu zitzaienak “normaltasun berria”-ren ondorioz lan presentzialera itzultzera behartu gintuztenean… Guk ospitaleratze kasu gogorrak eta ez hain larriak izan diren zenbaiten berri izan dugu. Lehenik eta behin, **haiekiko gure elkartasun eta animoak helarazi nahi dizkiegu,** ahalik lasterren guztiz osaturik egon daitezen opa egiten diegularik.

Horregatik, EHUko LABekook, **guztion bizitzak eta osasuna erdigunera ekarri** nahi ditugu, honako neurriak aldarrikatuz:

- PCR testak unibertsitate komunitatearen kideei egitea.
- Lan-Ikuskaritzak, LABek sartutako salaketari erantzunez adierazitako lanpostu guztietako **langileen arriskuen ebaluazioa eguneratzea.**
- **Langile zaurgarriei** babes berezia ematea, **telelanean jarduteko aukera** eskainiz.
- Izango diren **kasu positiboen kontaktuak detektatzeko pertsonal gaitua** jartzea.
- EHUko Prebentzio Zerbitzuak pairatzen duen **langile eskasia gainditzeko neurri adostuak martxan jartzea**.

Bestetik, EHUko Errektore eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari eta Hezkuntza Sailburuari gure erkidego autonomoko unibertsitate publikoaren **lan-baldintza duinak bermatzea** eskatzen dizkiegu, besteak beste:

- Egun, EHUko langileok pairatzen dugun **lan-prekarioaren pandemiari aurre egiteko neurri eraginkorrak** bermatzea: **egonkortasuna** aitortuz urte asko kontraturik kontratu dabiltzan langileei, **Lan Eskaintza Publiko bermedunak** planteatuz, …
- Programa-kontratuei lotutako **Lanpostuen Zerrendatik (LPZ) kanpoko kontratuak LPZkoak bilakatzeko konpromisoa gauzatzea.**
- **Zaintza lanak eta telelana errazteko sindikatuekin hitzarmen berria** adostea.
- **Enplegu kopurua ez galtzeko**, irakasleen zein administrazio eta zerbitzuetako (AZP) langileen **ordezkapenak bermatzea eta eginbehar berriei heltzea.**
- UPV/EHUko langile guztien (Irakasle, Ikerlari, AZPko langile, doktore aurreko ikerlari…) **lan-sariak hobetzeko behar besteko diru-sarrerak bideratzea,** soldatak gutxitzea edota izoztea alboratuz.

Azkenik, unibertsitate publikoak EAEko unibertsitate sisteman duen lehentasunezko papera betetzen jarraitu ahal izateko **finantziazio handiagoa bideratzea** eskatzen dio Jaurlaritza berriari EHUko LABek. Finantziazio handiagoa duela urte asko **Medikuntza Fakultatea** Bilbon eraikiko zela konpromiso hartu zenetik errealitate bilakatzeko, atzerapen gehiagorik gabe. Gero eta ikasle euskaldun gehiago duen EHUn **euskararen normalizazioan,** gizon eta emakumeen arteko **berdintasunean** zein **jasangarritasunean neurri eraginkorrak** martxan jarri ahal izateko.

EHUko **azpiegituren modernizazioan beharrezko inbertsioak** egiteko. **Langile guztion segurtasuna eta osasuna** bermatzeko. Eta Euskal Herriari behar dituen ekarpenak egiteko **merezi duen unibertsitate publikoa** izan dezan.